

## KRISTALIK GABEKO LEIHOA

Hasier ETXEBERRIA

### • Hasierak dakar bukaera

*Abendua da 1992an - Oteizari urrezko domina Nafarroan - Iba-  
rrolak erakusketa antologikoa Gasteizen - Txillidak mendi bat  
hustu nahi du - Santos Iñurrieta rugbyari bihurtu da - Irudigileak,  
ikonoklastiatik edaten hasi dira.*

**E**rantungailu automatikoak bel-  
durtu egiten nau gauean etxe-  
ratzen naizenean. "Heriotzetik  
edan nahi dut", esaten du ahots zahar  
batek. "Bizitza honetan ez daukat ezer  
jada. Goizero kaleratzen naiz egun-  
sentian eta milaka txorik egiten dit dio-  
sal txorrotxioka. Baina nik gorroto ditut  
txoriak, gorroto umeak, gorroto ande-  
reñoak. Hemen ez daukat ezer jada.  
Ez dago zer eginik, alferrik da. Herio-  
tzaren gozotasunean kulunkatuko naiz  
aurki. Hurbilago ditut joandakoak he-  
men geratzen zaretenak baino. Hortxe  
daude, beraien ondora noiz joango nai-  
zen zain. Egunero hitz egiten dut be-  
raiekin. Preindoeuroparrari buruzko li-  
buru bukagabe bat da bizirik irauteare-  
kin lotzen nauen gauza bakarra. Agur,  
ezin dut hizketan segi. Deituko dizut."

Oteizaren kalanbrazo bat izan da. Afa-  
ritarako zopa-sobre bat husten dut ur  
irakinetan, pentsati. Telefonoaren tirri-  
nak jotzen du nire gelan. Banoa.

"Arrate. Ar-ate. Ar ez da Harri. Larra-  
mendiri galdetzen diot eta ez dit eran-  
tzuten. Ez daki ezer. Azkueri galdetu  
eta hark ere erantzunik ez. Azkenez,  
Mitxelena kaskagorrari galdetzen diot,  
eta kale. Inor ez da konturatu Ar ez  
dela Harri. Ar, Huts da. Arrate ez da  
Harrizko Atea. Arrate Hutserako Atea  
da. Euskaldunen arima ez dator Har-  
-etik. Huts-etik dator. Huts izpirituala,  
horixe dago gure preindoeuroparraren  
sorreran..."

Sukaldera itzultzen naiz ordu erdi tele-  
fonoan zintzilik egon eta gero. Kea  
dago atetik barrura. Zopa! Dena erre  
zait. Kiratsa eta kea. Kaka zaharra! Be-  
netan Hutsik dagoena nire sabela da.  
Banoa ohera, bihar goizean goiz Gas-  
teizen egon behar dut.

Liburu bat zabaltzen dut mantapean:  
*Chillida-Heidegger-Husserl. El con-  
cepto de espacio en la filosofía y la  
plástica del siglo XX.* (Kosme María de  
Barañano, EHU, 1992). Egileak bidal-

tzen didan eskaintzan zeharka esanda dator Reina Sofian berak edukitako portaerari buruz egin nion kritika ez zaiola batere gustatu. Agian minik ere hartuko zuen hitz haiek irakurritakoan. Ni baino dotoreagoa da bera: "Sabes que siempre he defendido la posición crítica, como algo necesario en este país nuestro tan ensimismado, cuando en otro tiempo fue siempre de navegantes, de espíritus abiertos..." esaten dit. Barañanok txapela buruan ikusten didala iruditzen zait. Gutun bat idazteko gogoia sartzen zait. Bertan, nire ama Lisboan jaiotako bailarina bat dela esano diot eta nire aita Singapur-en hil zela bere ardurapean zegoen unti holandarra pirata dohakabe batzuen eskutan ez uztearren. Baina ez daukat gutunetarako astirik. Bihar Gasteiza joan behar dut, goiz. Ederra da, hala ere, Barañanoren liburu hau. Hurrengo ikusten dudanean, eskertuko diot bidali izana. Horretan, loak hartzen nau.

Zoragarria dago Gasteiz goizean goizeko argi urdin honekin. Urrutira Ibarrolaren eskulturak ageri dira baina orain ez daukat astirik. Gero ikusiko ditut. Alkatearekin lan bat egin behar dut lehendabizi. Hiriaren edertasunaz hitz egiten diodanean, baietz esaten dit, bikain dagoela benetan Bitorixa. Ibarrolaren eskulturak ere hantxe daudela esaten diodanean, aldatu egiten du

gaia. Agian oso estu edukiko du eguneko agenda.

Egin beharrekoak egindakoan, banao Ibarrolaren lanengana. Zorioneko nago. Nire lagunartean bakarretakoa naiz Ibarrolaren lanaz gozaten dakiena. Madrilgo antologikoan ere gauza bera nabaritu nuen. Oso gustoko ditut azkenaldiko bere lanak. Gizakia eta gizarte-gaiak erabiltzen dituen gogoko ez dudan bezala, lan informalistak plazerez igurzten dit arimaren azala. Eskultura handi baten parean gozamen hutsean nagoen une berean, bi emakume zahar pasatzen dira nire ondotik besotik helduta, "¡qué horror de estatua!" esaten dute ozen. Irribarre batek ihes egiten dit hortzetatik eta "ondo ari haiz Agustin", pentsatzen dut nirekiko.

Pare bat ezagunekin egiten dut topo kalean eta berehala aitortzen didate halako ezinegon bat dagoela hiriko giro artistikoetan. Itxura denez, plangintza kulturalik ezean, argazki handietarako zeremoniak prestatzen omen dituzte udaletik. Hau ere Ibarrolari tokatu behar.

Etxera bidean, autoko irratia piztu eta Oteizari markapasoa aldatu diotela entzuten dudanean, oraindik bizirik jarraitzea erabaki duela pentsatzen dut. Nafarroako Urrezko Domina eman

behr omen diote bere lana Nafarroan uzteagatik. Dinosauruen garaietan igerika gabiltza beti.

Ez dute arrazoi-faltarik artista gazteek: politikariek beharrezkoa duten baimentze estetiko eta propagandistikoa, artegintzaren lauzpabost maisuak goraltzearekin lortzen ikasi dute. Zahartzaroan dauden hiruzpalau hauek hil eta ehorzketa-zeremoniak bukatzen direnean, beste lau goraltzen hasiko dira. Nahikoa dute. Badakite, gainera, artistek ez dakitela ezetz esaten laudorioen orduan. Beti onartuko dituztela sari, aipamen eta omenaldiak. (Nola esaten da euskaraz “vanidad”?). Zertarako behar da kultur politika sakon bat baldin eta artistak bere funtzio hornidurazkoa luntx baten trukean eskaintzen baldin badu? Politikariak behar duenerako beti daude prest gure plastikariak.

Txillidaren estudiora noa Donostian. “Biharko eskuez lan egitea gustatzen zait niri”, esaten dit, “erantzunak baino, galderak ditut maiteago. Azkenaldiko nire ametsik handiena mendi bat hustea da. Harrobi konpainia zenbaitekin harremandu naiz eta baietz esan didate. Prest daudela nik esan bezala mendia ebakitzeko. Eskandinabiatik behera, Europa guztian zehar, mendi ugari eskaini didate hustuketa lan hau egin dezadan...”

Beti hunkitzen nau Txillidaren izaerak. Bere artistatasunak. Bere dotorezia eta estetizismo zoragarriak. Baina, gauzak diren bezala dira eta Himalaya mendikate guztia hustuko balu ere, Huts kontuan, atzoko nire zopa errearazi zuena da aita. Ez dakit zergatik egiten zaion hain zaila Txillidari bere aita nor den aitortzea. Heman denok jakingo genuke halako gauza bat ulertzen.

Egunkariak erosi ditut eta Iñurrietaren ekintza dator lehen orrialdeetan. Hasi gaituk! Pandoraren kutxako maratila eragin dute. Erreakzioak alde eta kontra. Alde, Gasteizko zenbait artista. Teoria eta guzti. Kultur politika salatzea ondo dago, baina hanka sartzen dute izterreraino: Ibarrolaren eskulturak ingurugiro urbanoa erasotzen omen du. Hiritarrengan, merezi ez duten kultur inferioritate-konplexua sortarazten omen du. Papelerdoak. Nork dauka hemen inferioritate-konplexua? Zertarako dira, bada, artelanak, zirrarak, plazerak, disgustuak, kezak, debateak eta eragin sozial, etiko eta estetikoak ekartzeko ez badira? Adorno eta dekorazioez ari al gara? Koldo Aginagaldek kontra egin dio Iñurrietari eta mailu batzuk ezarri ditu eskulturei zegozkien zulotan. Instalakuntzak “Te estás haciendo viejo Iñurrieta” du izena. Aginagaldek alkoholaren eragina ere aipatu du. Zer gertatzen da? Marketing berriak iritsi al

dira gure artisten industriara? Eztabaida puztu egiten da eta ez du merezi alferrik nekatzeak. Isilik.

Guggenheim onartu zela urtebete da. Artistek ez dute asmatu behar bezalako debate eraginkorra antolatzen. Jarduera plastikoak, norbanakoak sortzen ditu. Ez talderik, ez multzorik. Artistak beraien artean biltzeko ez dira gauza. Olio eta ura dira denak elkartzeko orduan. Eta urtea amaitzera doa.

#### • Kristalik gabe

Egutegiak bere azken orria galtzen duen gauean, urte berriak betikoan gaudela erakutsi digu beste behin ere. Urteen tolesturan dagoen ardatzak leku egin dio garai siames bati. Atzo 92 zen, bihar 93.

Leihoa iriki arnas berri bila, baina alferrik. Lehengo eta geroko haizea suelto dabil kristalik gabeko leihoan barrena. Haize berak harrapatu gabiltza beti. Zaharra berri, berria zahar. Dena da bat.

Ohean esnatzen naizenean, Gabon Zaharrean afaldutako marraskiloak ateratzen zaizkit belarrietatik. Izaretan gora eta beheara, denak doaz ihesi. Marraskiloetako bi, ohe ondoko liburu baten barruan ezkutatu dira: *El Mercado de la cultura. Estructura exonómica y política de la comunicación.* (Ramón

Zallo, Gakoa liburuak, 1992). Seguru asko gure artean sekula egin den azterketa-saiorik sendoena da bera. Irakurri ote dute gure artistek? Gure kazetariek? Gure politikariek? Batek ez behintzat. Liburu hau aholkatu nionean, bertan zer esaten zen adierazten laga baino lehen galdegin baitzidan, dena delako Zallo hori ORTkoa, edo troskoa izandakoa bera ez ote zen. Baietz esan nion nik, eta gainera Unibertsitate Publikoak finantzatzen zizkion oporretan, haur txikiak bortxatzen aurkitzen zuela plazerik gehien. Ondoren, erabilitako haurtxo txikien gorputxoekin salda egiten zuela, akelarre eklektiko eta moderno batean edana izan zedin.

216. orrialdean ezkutatuta zeuden bi marraskiloak ateratzen ditut, "Criterios para una política cultural en Euskadi" kapitulutik, alegia, eta bere lekuan jartzen dut liburua. Marraskiloak ere kankopoko sasieta bota ditut, oskolik apurtu gabe, kristalik ez daukan gelako leihotik.

#### •...eta amaierak hasiera

Urtarrila da 1993an - Basajaunen itzuleraren aldarrikatua - Mendi-Mendiyan - Plagioaren itzala

Dozenaka zigarro erretakoa naiz naturaren erdian. Agiña mendian ere bai.

Telebistako iragarkietan ikasitako ekologia txotxolo batek aginduta, zigarro mutur guztiak bat banaka bildu eta poltsikoan sartzen dituen horietakoa naiz. Ez zaizkit zelai berdeetan butano-bonbona laranjak gustatzen.

Lau arbola bota omen dituzte eskutan ditudan egunkari hauentzat papera lortzeko. Kontraesan ekologikoen artean irakurtzen dut Aita Donostiari eskainitako Oteizaren lana kolpatu dutela. Argazkietan gure herriaren sinboloa dator: harrizko borobil perfektu baina apurtu bat. Koskaz betetako Hutsa.

“Aralar Komandoa”k erabakitako puntuan hartu du itzulera Oteizak jaurtitako boomerangak. Ibarrolaren min beretik jaso du zaplastada Jorgek. Isildu ez izanaren damua izango du orain markapasoaren ondoan ezkutatuta. Betirako isilduko dela esan du gaur bertan milagarren aldiz. Beranduegi. Ezin da enbidoa bota eta gero jokotik jeiki.

Koldo Azpiazu izeneko bat irten da zarataka. Barandiaran santuaren izenean gainera. Hartzuloetako garaiak present. Kromletxaren errebindikazio betidanikoa. Erliijoaren fatalitate fanatikoa. Barandiaranek zenbatu zuena ez litzateke ezer Oteizak eduki sinbolikoz bete ez balu. Azpiazuk ez daki maite duen Barandiaranen eta gorrotatzen duen Oteizaren batuketarik gabe, bera ez dela ezer. Iraganik gabeko itzal-

–errainu ahul bat izango litzatekeela. Berak gaur daukan gosearen berri ere ez luke edukiko, batek zenbatu eta besteak interpretatu izan ez balute.

Ez dago kontsolamendurik. Agian lagun handi batek utzi dizkidan letra batzuetan bakarrik aurki dezaket gozamenik eta oraindik ere denok burua galdu ez dugunaren seinalerik: “Artistaren eredu, artzai neolitikoaren jokabidea eta lanbidea aldarrikatu zituen Oteizak. Bere ikasle (ohi)ek Oteizaren brontzeaz joaleak egin nahi dituzte. Artzain zahar neolitikoaren ume sentitu dira, eta harekin egin dute bat. Artzain egin dira Oteizaren programa burutuz, ‘Bizi dira baserrian, animalien erdian’.”

Iturrarteren obra ere eraso dute Atauen eta zerikusi zuzenik ez badute ere, Oiartzun aldean egindako bisonte erraldoi batentzako subentzio bila dabilzan gazte batzuk, denak, multzo berean ikusten ditu nere lagun honek. Barandiarandar Iturrarte hau, ordea, Mariaren aldekoa da, eta euskal errito bat antolatu du arteaz beste egiten duela adierazi eta aldarrikatzeko. Hutsik agertu du erakusketa-aretoa Zarautzen. “Isiltasunezko eta agitasunezko harresi baten atzean exiliatzen da”.

Hemen Herririk ez dagoela diotenean egiten dute herriaz beste. Erbestea erraz aurkitzen du, nonbait, herririk atzeman ezinean dabilenak.

# 5 EDIZIOA BALORAZIOZKO KAZETARITZA

Ez da harritzekoa. Bisonteak, izatekotan, erbeste urrunean aurkitzen ahal dira, eta ez Euskal Herrian. Monosilabikoka (UR,UR,SU,SU) mintzatzen direnak eroetxeetako erbesteetan. Erakusgela hutsik erakusten dituztenak, arte-eskuliburuetako orain hogeitau urtekoari dagokion kapituluaren exilioan.

Azpiazuk barruko elastiko beltza daralma soinean. Bizkarra darakus *El Mundo*-ko argazki batean. "Hostias pa la poli". Hemen potroak bizkarrean edu-

kitzen dira, nonbait. Potroak balore bat dira oraindik, nonbait. Eta dena nahasian, potroak, artea, kromletxa, polizia, antropologia, natura, erlijioa... Onaindia eta Juaristi bezalako listook asmatuko dute berriz ere ur zikinetatik amorraina harrapatzen.

Atzo Sabino Arana saria jaso du Txillidak. Gaur gauean gogogabe joan behar dut Maddalen Iriarteren *Ados* tele-saiora. Hitz egiteko aukera izango omen da bertan. Zeri buruz, ordea?•